MONOGASTRIKO TALDEAREN ZUHAITZA

BEHARRAK:
- TALDEA OSATU ETA ELKARLANA EGITEA
- MONOGASTRIKOETAN ADITUA DEN ALBAITARI BATEN LAGUNTZA
- IKERKETA: AZIENDA MOTA BAKOITZARENTZAT BEHAR DIREN KG ZEREAL ETA PROTEINA
- TXITA EKOLOGIKOAK LORTZEA

GARAPEN BIDEAK: idealak

Adar ekologikoa: maneiua

- Bertako arrazak sustatu.
- Bertako txita ekologikoak lortzeko bideak landu.
- Etxaldearen autonomia:
  - Zati bat etxean ekoiztu
  - Bertoko pentsua eta bertoko hornitzaileak.
- Loteekin lan egin. Aziendaren tamaina baino, lotearen tamainari garrantzia eman.
- Lurrarekin lotuta hegaztigintza kontutan hartu (1 ha = 300 oilo)
- Oilotegiak eraikitzeko material eta estruktura aukerak

Sozial arloko adarra

- Laborarien arteko harremanak, zitu ekoizleekin bereziki.
- Antolakuntza kolektiboa:
  - Produktu eskasiak talde barruan hornitu
  - Salmenta eta eraldaketarako proiektu kolektiboa.
- Instalazio berrietan, garrantzi gehiago lan eskuari, inbertsioei baino
- Denda txikien potentzialtasun sozioekonomikoa baliatu.
- Kontratazioak egitekotan, baldintza duinekin.

Bertakotasun adarra

- Bertako arrazak baloratu.
- Sentsibilizazioa:
  - Herritarrengan
  - Baserritarrengan

  (adb. 50 oilotik behera, euskal oiloa lehenetsi)
- Salmenta zuzena eta banaketa propioa ahalik eta gehien.
- Ekoizpen-eraldaketa-salmenta baserritarraren kontrolpean.
- Eraldaketak, arlo guztietan etxean egin ahal izatea.

OINARRIZKO BALDINTZAK

- Tamaina mugatu, lur eremuaren arabera (Erreferentzia modura = 1000 oilo/pertsona-soldata)
- Elikaduraren zati bat behintzat Euskal Herrikoa. Euskal Herrian ekoiztutako elikadura lehenetsi.
- Gardentasuna: informazio guztia eman, beti.
- Ekoizpen-eraldaketa-salmenta: Ahal den heinean, eta posible den kasuetan (arrautza ekoizpenean, esaterako), laboraria prozesu guztiaren jabe. Freskotasunak, ekoizpen industrialetatik desberdintzen gaitu.
- Laborantza da laborarien ogibidea eta ez negozio hutsa.
- Salmenta zuzena, zirkuitu laburrak, behintzat ekoizpenaren zati handi batentzat (gizarte harremanak eta sareak: herritarrak, denda txikiak,…)

COOPERACIÓN TERRITORIAL ESPAÑA-FRANCE-ANDORRA 2007-2013
Cofinanciado por los fondos europeos de desarrollo regional FEDER, a través del programa POCTEFA
Cofinancé par les fonds européen de développement des régions FEDER via le programme POCTEFA
FEDER Fondo Europeo de Desarrollo Regional

EHKO
LABORARIAK AGROEKOLOGIAREN BIDEAN